



Busturiko
Udala



Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea

DATA / FECHA: 2019/01/09

HASIERA / INICIO: 20:15

AMAIERA / FINAL: 20:20

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA / ALCALDE

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gai-zerrendaren arabera, eta akordio-proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2018ko abenduaren 19ko saioko akta onartzea.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 19 de diciembre de 2018.

2.- Udalaguntza 2018.-

Tokiko Gobernu Batzordeari Hezkuntza Sailburuaren 2018ko abenduaren 12ko Aginduaren argitalpenaren berri eman zitzaion, zeinaren bitartez laguntzak deitzen diren, Hezkuntza Administrazioaren baitako ikastetxe gisa erabiltzen diren udal-jabetzako eraikinetan obrak egikaritzeko gastuak finantzatzeko (Udalaguntza-2018).

Luze eta zabal eztabaidatu ostean, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zituen akordio hauek:

- 1.- Udalaguntza 2018 programaren baitan, laguntza ekonomikoa eskatu José María Ucelay Herri Ikastetxeko lehenengo solairuko komun eraberritze-lanetarako.
- 2.- Udaleko arkitekto-aholkulariari igogailuaren bidea luzatzeko azterketa eskatu, estaldura azpiko solairura iris dadin.
- 3.- Hezkuntza Sailari eskaera egin ikastetxeko kirol-jolastokia estaltzeko lanak oso-osorik finantzatza ditzan.

2.º.- Udalaguntza 2018.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de la publicación de la Orden de 12 de diciembre de 2018, de la Consejera de Educación, por la que se convocan ayudas a la financiación de los gastos destinados para la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la Administración educativa (Udalaguntza-2018).

Tras amplio debate, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

- 1.º.- Solicitar, dentro del programa Udalaguntza 2018, ayuda económica para las obras de reforma de los baños de la primera planta del C.P. José María Ucelay.
- 2.º.- Encargar al Arquitecto Asesor Municipal que estudie la posibilidad de prolongar el trayecto del ascensor para que llegue hasta la planta bajo cubierta.
- 3.º.- Solicitar del Departamento de Educación del Gobierno que, con sus propios recursos, realice las obras de cubrición del patio deportivo del centro escolar.

3.- Euskara-ikastaroak egiteagatiko diru-laguntzak.-

Euskara-ikastaroak egiteagatiko diru-laguntza eskaerarekin lotutako agiriak ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen P. R. F.ri 217,50 €-ko diru-laguntza ematea.

Halaber, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen S. C. V.ek eta E. Z. U.k aurkeztutako eskaerak ez onartzea; izan ere, beste erakunde batzuen laguntza jaso dute, eta hori espresuki debekatuta dago laguntzak emateari buruzko udal-arau-dian.

3.º.- Petición de subvención por cursos de euskera.-

Vista la documentación presentada en relación a la petición de subvención por haber realizado cursos de euskera, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder una ayuda económica de 217,50 € a P. R. F.

Asimismo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó rechazar las solicitudes presentadas por S. C. V. y E. Z. U., ya que éstos han recibido ayuda de otros organismos, lo cual está expresamente prohibido en la normativa municipal para la concesión de ayudas.

4.- Urkitzeperako eta Lugarrirako sarreren itxieraren eta auzokideek egindako itxieren gaineko espedientea.-

4.º.- Expediente por cierre de los accesos a Urkitzepe y Lugarri y los cierres realizados por los vecinos.-



Urkitzeperako eta Lugarriako sarrerak eta auzokideek egindako itxierak zirela eta, Zain Dezagun Urdaibaik egindako salaketaren gainean Udal honek 2018ko azaroaren 8an egindako akordioari dagokionez, Tokiko Gobernu Batzordeari Euskadiko Itsasbazter Mugaketak igorritako jakinarazpen baten berri eman zitzaion. Bertan adierazitakoaren arabera, jabeak atzeraman egin du itxiera, eta, Kostaldeein buruzko Legearen 27. artikulua xedatu bezala, hesia itsasertzetik 6 metrora jarri du. Gauzak horrela, eta espedientea bukatutzat jotzea zegokiola iritzita, Tokiko Gobernu Batzordeak ahoz batez erabaki zuen proposamena elkarte salatzaileari helaraztea, 15 eguneko epean egoki deritzen alegazioak aurkez ditzan.

En relación al acuerdo adoptado por este Ayuntamiento el pasado 8 de noviembre de 2018, sobre la denuncia formulada por Zain dezagun Urdaibai, en relación a los accesos a Urkitzepe y Lugarri y los cierres realizados por los vecinos, la Junta de Gobierno Local fue informada de que se ha recibido una comunicación por parte de la Demarcación de Costas del País Vasco en la que dan cuenta que ha sido retranqueado el cierre por el particular, colocando la valla a 6 metros de la rivera del mar, tal y como establece el artículo 27 de la Ley de Costas.

A la vista de ello, y considerando que lo procedente es archivar el expediente, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dar traslado de esta propuesta a la asociación denunciante, a fin de que en el plazo de 15 días formule las alegaciones que estime oportunas.

5.- Horma-hilobi esleipena.-

O. G. I.k aurkeztutako idazkia ikusirik, Udal-hilerrian horma-hilobi bat eman dakion eskatzeko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera onartzea: 12. horma-hilobia esleituko zaio.

5.º.- Concesión de nicho.-

Visto el escrito presentado por O. G. I., solicitando la concesión de un nicho en el Cementerio Municipal, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición y asignarle el nicho número 12.

6.- C. H. P.ren zerga-salbuespen eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak ahoz batez erabaki zuen C. H. P.k egindako zerga-salbuespen eskaera ez onartzea, 9443-CGZ matrikuladun autoari dagokion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergari zegokiona, hain zuzen. Izan ere, zergaren Foru Arauari eta Udal Ordenantzari jarraiki, desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak bakarrik egon daitezke salbuetsita, betiere 14 zaldi fiskal baino gutxiago badute. Kasu honetan, baina, ibilgailuak 17,77 zaldi fiskal ditu.

6.º.-Solicitud de exención del impuesto de Carlos Hormaetxea Pascua.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la solicitud formulada por C. H. P., para que le sea reconocida la exención del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica correspondiente al turismo 9443-CGZ, dado que, según la Norma Foral del Impuesto y la Ordenanza Municipal, solo pueden estar exentos los vehículos matriculados a nombre de personas con discapacidad siempre que sean de menos de 14 caballos fiscales, y el citado vehículo tiene 17,77.

7.- J. A. D.en berraztertze-errekurtsoa.-

J. A. D.ek jarritako berraztertze-errekurtsoa ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak 2018ko abenduaren 5ean egindako akordioaren kontra, zeinaren bidez ez zen onartu Altamiran, Txirapozu Jauregiaren ondoan, zuhaitz bat mozteagatik hark eskatutako kalte-ordaina, eta errekurtsoaren gainerakoa aztertu gabe ere, agerikoa izanik udal-akordioa zehaztutako lege-prozedura erabat baztertuta egin zela, Tokiko Gobernu Batzordeak hauxe erabaki zuen, aho batez:

- 1.- Arginzoniz jaunak aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa onartzea, eta, ondorioz, 2018ko abenduaren 5eko akordioa baliogabetzea.
- 2.- Espedienteko jarduketak aipatu unera atzera eramatea.

7.º.- Recurso de reposición de J. A. D.-

Visto el recurso de reposición formulado por J. A. D. contra el acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local de 5 de diciembre de 2018, por la que se rechazaba su reclamación de indemnización por la tala de un árbol en Altamira, junto al Palacio Chirapozu; considerando que, sin analizar el resto del recurso, resulta evidente que el acuerdo municipal se adoptó prescindiendo total y absolutamente del procedimiento legalmente establecido, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

- 1.- Aceptar el recurso de reposición presentado por el Sr. Arginzoniz, y anular en consecuencia el acuerdo adoptado el pasado 5 de diciembre de 2018.
- 2.- Retrotraer las actuaciones del expediente al citado momento.



8.- I. B. U. ren idazkia.-

Axpeko pilotaleku irekian eta Itxasadarreko futbol-zelaiko aldagelen eraikinean dauden kalteen gainean I. B. U.k aurkeztutako idazkia ikusirik, eta horri buruz Udaleko arkitekto-aholkulariak egindako txostena aztertutik premiazkoa iruditzen zaio pilotalekuan askatzeko arriskua duten gunek pikatzea, ondoren saneamendu-lanen zenbatespena egin ahal izateko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aipatu lanak berehala hastea.

8.º.- Escrito de I. B. U.-

Visto el escrito presentado por I. B. U. sobre los desperfectos existentes en el frontón descubierto de Axpe y en el edificio de los vestuarios del campo de fútbol de Itxasadar; visto el informe emitido al respecto por el Arquitecto Asesor Municipal, en el que considera urgente el picado de las zonas que presentan peligro de desprendimiento en el frontón para posteriormente hacer una valoración de los trabajos de saneado, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó proceder de inmediato a realizar dichos trabajos.

9.- Egurra ateratzeagatiko abala itzultzea.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera hau onartzea:
- Puente Garay Forestal S.L. enpresarena, "Malluku" bidea erabiliz J. Z. B. ren "Malluku" menditik egurra ateratzeko jarrita duen 6.000 €-ko fidantza itzul dakion.

9.º.- Devolución de aval por saca de madera.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la siguiente solicitud presentada:
- Puente Garay Forestal, S.L., para la devolución de la fianza de 6.000 € que tiene depositada para la saca de madera del monte "Malluku", propiedad de J. Z. B., utilizando la pista de "Malluku".

10.- Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren arloko diru-laguntza.

Tokiko Gobernu Batzordeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariaren 2018ko abenduaren 4ko ebazpenaren berri jakin zuen. Aipatu ebazpenak diru-laguntzak arautzen ditu, eta haiek banatzeko deialdiak egiten, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna dela-eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, kuadrillek eta mankomunitateek beharrezko laguntza izan dezaten, 2019 ekitaldian, diagnostikoak egiteko edota planak prestatzeko nahiz ebaluatzeko. Tokiko Gobernu Batzordeak ahoz batez erabaki zuen bi jardueretarako laguntza eskatzea:
1.- 2-12 urte bitarteko nesken eta mutilen arteko berdintasun-egoeraren diagnostikoa.
2.- Busturiko Andrazkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako I. Planaren ebaluazioa eta II. aren idazketa.

10.º.- Subvención en materia de igualdad entre mujeres y hombres.-

La Junta de Gobierno Local tomó conocimiento de la Resolución de 4 de diciembre de 2018, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se regula y convoca la concesión de subvenciones, en el ejercicio 2019, a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la comunidad Autónoma de Euskadi destinadas a proporcionar la asistencia técnica necesaria para la realización de diagnósticos y/o elaboración y evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres. La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar ayuda para la realización de dos actividades:
1.- Diagnóstico sobre la situación en materia de igualdad de niños y niñas de 2 a 12 años.
2.- Evaluación del primer Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres de Busturia y redacción del segundo plan.

11.- Udal-hilerriko lursailak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen M. L. O. O.ri Udal-hilerrian emandako lursailaren zenbakia zuzentzea; izan ere, 1988an esleitutakoa (2. mailako panteoietako 37. lursaila), egun beste jabe batek dauka, akats administratibo baten ondorioz. Horrenbestez, Olano andreari esleitutako lursailaren zenbakia aldatu egin da: 66. zenbakia izango du aurrerantzean.

11.º.- Parcelas en el Cementerio Municipal.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó corregir la numeración de la parcela concedida en el Cementerio Municipal a M. L. O. O., ya que la adjudicada en 1988 (parcela n.º 37 de panteones de 2.ª) actualmente está ocupada por otro titular por un error administrativo. En consecuencia se modifica la concesión a la Sra. Olano, pasando a ser su parcela la n.º 66.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, akta hau idatzi da, Alkate jaunak eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dudanak, sinatu duguna.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.



Busturiko
Udala



Akta

Alkatea / El Alcalde,

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez